



ITSASOKOAK

MARÍTIMAS



ITSasmuseum

Zbk.
04
URR 2021

*Ihes ederra zilegi balitz
Urra ahal baledi katea
Ni ez nintzake ontzi gabeko
Itsasgizon ahalgea.*

*Si estuviera permitido huir
si fuera posible romper la cadena
no sería un navegante impotente
carente de barco.*

Letra: **Xabier Lete**
Abestia / Canción: **Mikel Laboa**



SARRERA

Itsasmuseum adin-nagusitasunera iritsi da, 18 urte bete baititu azaroan, eta urteurren hori ospatzeko kultura-programazio bizia eskaini nahi du. Hala, museoan 2022ko urtarrilera arte zabalik egongo den "Ibarrola itsasadarrean: ura, burdina, sua eta airea" erakusketaren katalogoaren egilea den Juan Ángel Velak hitzaldi bat emango du, Agustín Ibarrolaren ibilbide artistikoan sakontzeko, eta Artearen Historiako katedradun eta ikertzaile Maite Paliza Daniel Zuloagari eta dohaintza pribatu bati esker museoko erakusketa iraunkorrean sartu berri den zeramikazko muralari buruz arituko da.

Gainera, aurki, Itsasmuseumek berrikuntza garrantzitsuak aurkeztuko ditu museo-proposamenean. Beheko solairuan Bilboko Kontsulatuaren Entzunaldi Aretoa jartzen ari da, lehenago Euskal Museoan zegoena. Horrek koherentzia eta indarra emango dizkio museoaren erakusketa-diskurtsoari, eta honako hauek osatuko dute: jatorrizko altzariak, ondare-balioa duten piezak, arte-lan garrantzitsuak eta falua. Denek osatuko duten espazio berriak 1511n sortutako instituzio funtsezko baten garrantzi historiko eta soziala balioetsiko du. Ere horretan, besteak beste, Arana jauregiko kasetoiak nabarmentzen dira. Bertan, itsas eszena desberdinak islatzen dira, hala nola nabigazioak, aborlatzeak eta hondoratzeak, eta, horien artean, Kontsulatuko falua bat ere irudikatuta dago.

Ondare-izaerako proposamen horrekin batera, Itsasmuseumek Bilbao 1803 escape room-a aurkezten du, asmamen-jokoekin eta joko esperimentalekin interesa duen publiko gazteari zuzendutako ekimen ludiko berria. Joko bat da, besterik ez, baina testuinguru historiko erreal batean girotuta dago, eta aditzera ematen digu XIX. mendearen hasieran gure hiriak izan zuen garrantzi komertziala; izan ere, mundu osotik zetozen itsasontzi asko iristen ziren bertara.

Aurten, museoak UPV-EHUren Jardunbide egokiak euskal ontzi tradizionalen eta itsas ondarearen zaharberritze zientifikoan izeneko udako ikastaroa antolatu du, eta foro bat eskaini du horrela Erain-en –XX. mendeko Bizkaiko itsasertzeko zurgintza berreskuratzeko egitasmoa– Nuevo Anchústegui arrantza-ontziaren zaharberritze zientifikotik abiatuta egindako eskuliburua partekatzeko, eztabaidatzeko eta hobetzeko. Proiektuaren helburua da instituzio, elkarte edo partikularrei laguntza ematea eta gidatzea, ontziak erraz eta ondarea errespetatuz kontserba ditzaten.

Carol Iglesias Espazioa aretoan, Iñaki Oñate argazkilariaren “Itsasargia, gaueko izarra” argazki-erakusketa egongo da ikusgai azaroaren amaierara arte. Liburuak sortzeko baliatzen den papiroa ateratzeko ihiak Nilo ibaian landatzen dira, Alexandro Handiak, Faros uharteari erreferentzia egiten dion Odiseako pasarte bat entzun ondoren, Alexandria sortu zuen toki berean, zeina ezaguna baita bere liburutegi, museo eta itsasargiagatik. Ptolomeoren garaian eraikitako itsasargi bat, antzinako munduko 7 mirarietako bat izango zena. Eraikinik altuenetako bat izango zen, 120 metroko altuera izango zuela uste da. Bere ispiluak garai hartako puntako teknologiaren erakusgarri ziren. Ispilu horiek egunez eguzkia islatzen zuten eta gauez su baten distira. Irene Vallejos El infinito en un junco liburuan azaltzen duenez, hasiera batean Faros leku bat zen, uharte bat, eta grezieraz objektuak, eraikinak, argia zuen dorreak hortik hartu zuen izena. Gaur egun, geokopakapen-teknologia berriarekin, itsasargiek beren eginkizunaren zati bat galdu dute, baina oraindik ere beharrezkoak dira eta gure itsas kulturaren parte dira.

Jon Ruigómez Matxin
Itsasmuseum Bilbao

PIEZA. Itsasmuseumeko itsas bildumari balioa emateko atala, pieza nabarmenduaren, pieza zaharberriaren edo dohaintzan jasotako ondasunaren bidez

Arana Jauregiko kasetoiak

Izaskun Etxaniz Epelde

Itsasmuseumek erakusten duen multzoak Euskal Museoaren bildumako 9 kasetoi ditu, Bilboko Zazpikaleetan XVI. mendearen amaiera eta XVII. mendearen hasiera artean

ziurrena aurreko dorre gotor baten orubean eraiki zuten Arana jauregikoak denak. Gaur egun, jauregiak Belostikaletik du sarrera, eta fatxadak Erribera aldera ematen du.

Kasetoiak dira, gaztainondo zurrez egindako oholak, forma angeluzuzenekoak, buztan koloreko tenple-pinturaz polikromatuak, eta itsasoarekin eta itsas merkataritzarekin lotutako eszenak irudikatzen dituzte: itsasontziak, itsas guduak eta itsas eraikitzaileak, besteak beste. Itsasmuseumen aurkezten direnez gain, Arana jauregiko kasetoien bilduma osoak eguneroko bizitzako eszenak biltzen ditu, musika, dantza, ehiza eta antzekoekin lotutakoak, jatorrizko etxeko familia-leinuaren armarrikin txandakatuz.



Apaingarri gisa, kasetoi horiek Arana familiaren bizilekua zen eta Bilboko Zazpikaleetan kontserbatzen den jauregirik zaharreneko oin nagusiko kasetoi-sabaikoak ziren, eta bigarren solairuko gela batzuetan ere bazeuden.



Jauregia itsasadarraren inguruan zegoen lerrokatua eta kalearen hasiera hartzen zuen, Zazpikaleen sarreran defentsa egiten zuten edo posizio soziala adierazten zuten dorre eta etxetzar nobleen gisa. Hamabi eraikin noble ere izan ziren Zazpikaleen buruan, eta denboraren poderioz desagertu egin dira.

Estilo errenazentista berantiarreko jauregiak erdi-puntuako arkudun portada bat zuen, jauregia antolatzen zuen barne-patioaren sarreran zeuden bi herkules basatik babestua. Egoitzaren barruko sabaiak forjatu laukoak ziren, fa-

txadarekiko paraleloak eta zeharkakoak ziren solibak zituzten, eta kasetoiak habe frontalen gainean zeuden. Dekorazio hori garai hartako Gaztelako arkitektura bereizgarria da, eta Arana jauregia apaindura-mota hori duen Euskal Herriko kasu bakanetako bat da.

Etxebizitza partikularrak izateko eraldatu zuten arren, gaur egun eraikinak jauregiaren jatorrizko xehetasun batzuk gorde ditu, hala nola sarrera nagusirako sarbidea, arkupeak, balkoiak eta tipologia- ren eta bolometriaren zati berezi batzuk.



Arana jauregitik oso gertu hiriaren ernamuina zegoen. San Anton elizaren ondoan, Bilboko udaletxea eta kotsuletxea hartzen zituen eraikina zegoen, eta aurrealdean, Plaza Zaharra edo Plaza Nagusia, hiribilduaren erdigune neuralgikoa izandakoa mendeetan zehar, hiribilduko bizitza urbanoa, politikoa, ekonomikoa eta soziala garatzen

zen tokia. Salgaien zama-lanetarako eta merkataritza-jarduerak egiteko lekua; kaietan belaontziak eta produktuz betetako gabarrak egoten ziren. Plaza hori hornikuntza eta jarduera komertzialen azoka bezala erabiltzen zuten, eta, gainera, bertan ospatzen ziren hiribilduko jaiak, zezenketekin eta beste ekitaldi sozial batzuekin.

Bilboko Kotsulatuko falua. Erakusgai dagoen kasetoi-multzoaren artean, berariaz aipatu behar da Kotsulatuko faluaren irudia erreproduzitzen duen ohola. Irudi hori kontserbatzen den faluaren irudikapenik zaharrenetako bat dela esan daiteke.

1511n sortu zenetik, Bilboko Kotsulatua Bilboko portuko eta itsasadarreko merkataritza arautzeaz arduratu zen, bai eta bide- eta portu-azpiegiturak proiektatzeaz eta gauzatzaz, eta nabigazio-ikasketak programatzeaz eta kapitainak eta pilotuak prestatzeaz ere.


Kotsulatuaren boterea hiribilduko ekitaldi ofizialetan eta jaietan nabarmentzen zen, orduan faluak protagonismoa hartzen baitzuen, agintarien segizioa itsasadarre-

tik eramanez. Tokiko boterearen eta Kotsulatuaren boterearen sinboloak nabarmen agertzen ziren apainduran, bandera, armarriri, danbor eta abarren irudikapen piktorikoaren bidez. Banderak, San Andresen gurutzearekin eta Kotsulatuaren armarriarekin, areago indartzen zituen agintearen ikur horiek.

Bilboko Euskal Museoko kasetoi-multzoa 2019ko ekainean iritsi zen Itsasmuseumera, *Juan Sebastián Elkano. Aztarnaren bila* aldi baterako erakusketaren parte izateko, lehen zirkumnabigazioaren 500. urteurrenaren oroimenez. Erakusketak Getariako kapitainaren bizitza aztertzen zuen, XV. mendearen amaieran jaio zenetik, historian lehen aldiz munduari itzulia eman, eta 1526an hil zen arte, espezieen uhartera egindako bigarren espedizioan.

Orain, pieza horiek erakusketa iraunkorraren gune berrian sartuko dira, Bilboko Kotsulatuaren aretoaren ondoan. ■

[Bildumara joan](#)



ERAIN. Erain proiektuaren eta, zehazki, Antxustegi ontziaren zaharberritzearen bilakaeraren berri emateko atala

Itsasertzeko zurgintza, tradizioa eta berrikuntza

Jon Ispizua San Nicolás

Zurezko itsasontzien mundua ezagutzen ez duen norbaitekin hitz egiten badugu edo itsasalde-tik urruntzen bagara, itsasertzeko zurgintza hitza ezezaguna da lagun askorentzat. Are gehiago, gure itsasaldean bertan, itsasertzeko zurginei arotz edo zurgin esaten zaie, bestelako deitura edo zehaztapenik gabe, nahiz eta oso lanbide hedatua eta errotua izan, hala sozialki, nola ekonomikoki, Bizkaiko itsasaldean eta Bilboko itsasadarraren ertzetan.

Erainek, Bizkaiko itsasertzeko zurgintzaren XX. mendeko gure proiektuak, garai batean berritzaile

lea izan zen jakintza hori berr-eskuratzea du helburu, eta, era berean, tradizioaren eta ahozko memoriaren igorle izan nahi du, etorkizuneko belaunaldiek jaso ahal izateko eta zurezko ontziak mantentzeko eta zaharberritzeko erreferente izateko, betiere haien ondare-balioa errespetatuz.

Itsasertzeko zurgintza lanbide zaila eta osoa da, itsasontzi bat eraikitzeko prozesu guztiak jakin, haren formak eta diseinua ulertu, planoak eta trazadura 1:1 eskalan interpretatu, eta trazadura horrekin lortutako txantiloiak egin behar baitira. Zura aukeratzea eta tratatzea ere erabakigarria izaten da prozesu horretan. Ontzigintzan erabiltzen diren zur-motak eta horien ezaugarriak jakin behar dira, baita zuhaitzaren zatiak eta kalitate desberdinak, eta sortu nahi den pieza bakoitzean egin beharreko ebakidurak ere. Tresna eta teknika espezifikokoak ere badira, hala nola finkatzea, istinkatzea eta pintatzea.

DESAGERTZEKO ZORIAN DAGOEN LANBIDEA. Itsasertzeko zurgintza ageri-agerian egon da Euskadin XX. mendean zehar. Krisian hasi zen, lehenik, 1970eko hamarkadan

aisialdirako ontzien eraikuntzan poliesterra sartu zenean, eta, gero, 1990eko hamarkadan arrantza profesionalean altzairua sartu zenean. Ordotik aurrera, zuraren orde material berriak erabiltzen hasi ziren, mantentze-kostu txikiagoa zutenak, eta, pixkanaka, itsasertzeko ontziola asko desagertzen hasi ziren. Gaur egun, Euskadin, jardunean jarraitzen duten gutxi horiek –Bermeoko ontziolak, Olaziregi ontziolak edo Astondoa ontziolak– material konposatuekin lan egiten dute, hala nola beira-zuntz, poliester eta karbonoarekin.

Horren guztiaren ondorioz, gure portuetako paisaiak erabat aldatu dira, eta horrek berresten du itsasertzeko zurgintzaren lanbidea desagertzeko dagoen joera. Itsasertzeko zurgintzarik gabe ez dago zurezko ontzirik, eta zurezko ontzirik gabe ez dago itsasertzeko zurgintzarik.

Eta zergatik jarraitu arraunean lanbide honek iraun dezan, Euskal Herrian itsasertzeko zurgintzak logika ekonomiko edo profesionalik betetzen ez badu?

Lehenik eta behin, lanbide baten inguruan sortutako ezagutza oro ondare-ondasun bat delako,

etnografiaren bidez babestu eta jaso beharrekoa, garai horretako protagonisten edo pertsonen testigantzekin, argitalpenen, ikus-entzunezko hedabideen, museoetako erakusketen edo bes-telako baliabideen bidez, esaterako, gaur egun, Interneten bidez.

Itsasmuseumekook uste dugu lanbide baten ezagutza gordetzea iraganean izan zena jasotzea baino zerbait gehiago dela, gauzak egiteko modua ere berreskuratu behar baita. Baina zertarako berreskuratu itxuraz errentagarria ez den jarduera bat, ekonomiaren ikuspegitik behintzat? Etorkizun ezin hobe batean, itsasertzeko zurgintza izateko arrazoia izango zen, baldin eta zurezko ontziek –eta, beraz, lanbideak– interesa berriz piztuko balute, eta, beraz, mota horretako negozioak bideragarriak izango balira. Nekez bete daitekeen ametsa.

Epe laburrean, badirudi ezagutza praktikoak bizirauteko eta berreskuratzeko, ezinbestez lotu behar dela aisialdiko, kulturako eta ondarearen kontserbazioko jarduerekin, besteak beste, ontzi partikularren konponketarekin, Itsas Egurra Haizea, Euskal Bate-leroa eta beste elkarte batzuen

jarduerekin –ontzi tradizionalen kontzentrazioak antolatzen baitituzte–, batelak eraikitzen dituen Beduala elkartearekin, Brokoa txaluparen batela eraikitzen aitzindaria izan zen Sokoako Itsas Begia elkartearekin edo Albaola Fundazioarekin.

Kontserbatzen diren zurezko itsasontzi urrien artean, Santurtziko *Agurtza* eta Hondarribiko *Mariñel* nabarmentzen dira; tamaina jakin bateko beste batzuk, gaur egun ere, itsasoz ibiltzen dira, hala nola *Ortube* Bermeon, *Ozentziyo* Donostian, *Mater* itsasontzi museo ekoaktiboa eta *Kulixka* yatea Lekeition. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskadin aitzindaria den bilduma bat du gorderik, eta gure bilduman ondare-balio handiko ontzi batzuk gordetzen dira, esaterako, *Nuevo Anchústegui* arrantza-ontzia.

Gainera, dirulaguntza berezi bat finkatu da Eusko Jaurlaritzaren Itsas Ondarea balioesteko, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza irmoa dugu.

Euskadin ondare- eta kultura-interesekotzat jotzen diren ontzien katalogo bat dago, eta horiek kontserbatzeko beharrezkoa da itsasertzeko zurgintzaren lanbide-

aren ezagutza praktikoa. Gainera, Bartzelonako Manifestua (Barcelona Charter) bere gain hartuz, Itsasontziak eta itsasontzi tradizionalak kontserbatzeko eta zaharberritzeko Europako Gutunak 8. artikuluan adierazten du ontzi tradizionalak zaharberritzean teknika eta material tradizionalak erabili behar direla.

DIZIPLINA ANITZEKO TALDEA. Gaur egun, gero eta ohikoagoa da, ondare-piezak kontserbatu eta zaharberritzean, lantaldeak edo diziplina anitzeko taldeak eratzea, kontserbazioaren, ikerketaren, zaharberritzearen eta bestelako profilen sektoreko pertsonak osatuak, zaharberritze zientifikoaren irizpideak betetzeko behar diren jakintza-arloetara egokitzeko. Hala, zaharberritu beharreko pieza-motaren arabera, profilak halakoak edo bestelakoak izango dira, eta, zalantzarik gabe, itsas ondarearen kasuan, itsasertzeko zurgintzaren ezagutzak agerian egon behar du lantaldean.

Itsasertzeko zurgintza berreskuratzeke oztopo nagusietako bat da, hain zuzen ere, ontzi horiek herrialdeko kultura-ondare gisa duten aintzatespen eskasa; lanerako

tresna gisa eraiki ziren, arrunt eta ugari, zuten eginkizuna bete zezaten, bestelako asmorik gabe. Horregatik, haien bizitza aktiboa laburra zen, urte gutxiren buruan amortizatu eta ordeztu egiten zituzten beste ontzi modernoago batzuk hartuz, prestazio handiagoak zituztenak edo unean uneko beharretara hobeto egokitzen zirenak. Ez zieten balio handiagorik ematen, eta, beraz, ezta itsasertzeko zurgintza lanbideari ere. Zurezko ontzien zaharberritze zientifiko tradizionalan, ikerketa egin behar da, babes berezia behar duten ontziak identifikatzeko; bestetik, balorazio horretan irizpide komunak ezarri behar dira, eta belaunaldien arteko jarraitutasuna bermatzeko ezagutza transmititu behar da.

ITSASERTZEKO ZURGINTZAKO PRESTAKUNTZA. Itsasertzeko zurgintzaren ezagutzak bizirik iraun dezan eta, beraz, ontziak zuzen kontserbatu ahal izan daitezen, kalitatezko prestakuntza bermatu behar da lanbide honetan. Gaur egun hainbat ekimen daude Euskadin: Gipuzkoan, Beduala Zumaian eta Albaola Pasaian, eta Bizkaian, Itsasmuseum. Itsasertzeko zur-


gintzako gure proiektuak, Erainek, eskaintzen du prestakuntza praktikoa, zenbait tradiziozara hurbiltzea eta lanbidearen berezko hiztegia, talde-lana eta lehenaldia eta oraina batzen dituen zaharberritze-proiektu erakargarri batean –*Nuevo Anchústegui* zaharberritze-proiektuan– txertatzea. Prozesu guztia Jardunbide Egokien Eskuliburua batean jasotzen ari gara, zurezko ontzien kontserbazio zuzena gidatzeko.

AZKEN GOGOETA. Itsasmuseumen nahiko baikor gaude itsasertzeko zurgintzaren ezagutza berreskuratzeari dagokionez, behintzat, gure itsas ondarearen kontserbazioari lotuta badago; baina ondo dakigu epe laburrean ez dela aldaketa handirik egongo, eta lanean jarraitu behar dela etorkizunari begira.

"Itsasertzeko zurgintza galtzea gure garaiko bilakaerarekin bat doa, baina haren kontserbazioa lortzeak gizarte garatu eta sentibera baten bereizgarria izan behar du".



[Eraini buruz gehiago](#)



ALDI BATERAKOA.
Uneko aldi baterako
erakusketarekin zerikusia
duen alderdiren batean
sakontzeko atala

Mar íntimas

Íñaki Oñate

Interesgarria iruditu zait hitz-joko bat egitea, letra hauen patua kontuan hartuta.

Aspaldi da gauak argiz betetzen direla, argi iheskor eta galkor batez. Lainoen eta haizeen artean irristatuz, distiren morse kode batek gidatzen du itsaso guztien nabigazioa.

Itsasargiak –hitz larriz idaztea gusatzan zait, diedan begirune sakona senti dezaten– itsaslabarretatik zerumuga arakatuz begiratzen duten irudi harro horiek dira; milia batzuetara gertatzen den guztiaren zelatari, ahalegina egiten dute itsasoz haraindi ikusgai egoteko, dantza

intimo horrekin, zeina, edozein areto-dantza bezala, biraka ari den bere buruaren edo bikotekidearen –gauaren– inguruan. Eta isurtzen duten poesia horrek 13 urte daromatza bidaiatzen lekua eman dieten tokietatik.

“Itsasargia, gaueko izarra” erakusketak buru ematen dio 13 urteko lanari. 200 orrialdeko liburu batean iraulita dago, eta, bertan, istorioak kontatzen dira eta ondare bihurtu diren eraikin industrial hauen edertasuna erakusten da.

Bigarren aukeren aldeko arrazoibide bat izan nahi du, itsasargien erabilera berriaren aldeko arrazoibide bat, orain, nabigazioak beste euskarri batzuk dituelarik. Ez litzaidake gustatuko hondoratzea neguko gau horietako batean, ekaitz beldurgarri baten erdian.

Museoko areto honetan erakusketa hau egiteko aukera sortu zenean, argi eta garbi ikusi nuen. Aukera nuen barruan lau itsasargi egiteko, eta halaxe egin nuen.

Sarreran dagoen 65”-ko pantaila teknika mistoekin elikatu da. Drone bidezko grabazioak, timelapseak,



argazkiak, bideoak, liburuaren orriak. Hori guztia, atzealdean itsasoaren soinua entzuten dela, itsasargiek eta haien argiek zaintzen duten itsaso horrena. Bidaiek eta paisaiek ezaugarri komun bat izan dute, hain zuzen, istorio bat kontatzea, eta nire kameraren erretinan paisaia hori sortzeko bidaian gertatutako istorioa kontatzea.

Liburuan kontatzen dira argazkiak atera bitartean izandako esperientzia pertsonalak, umorez jorraturik, eta kontu intimoak, dagoeneko lotsarik ez baitut horiek kontatzeko, bai baitakit bizitza agertoki bat dela, bertan dramak eta komediak izaten direla, eta hala izan behar duela.

Itsasargi bakoitzak, leku bakoitzak, bidaia bakoitzak nire bizitzaren zati bat eraman du berekin; batzuek ezustekoak eman dizkirate, liburuan kontatzen dudana bezala. Batek ezin du esker on gehiago espero. Batzuetan pentsatu izan dut bazekitela zertan ari nintzen, eta beren onespina eta oparia eman zizkidatela. Zerua ardatzetik zintzilikatutako

ilargiak mila gau eta bat gehiagoko arratsetan. "Iparralderantz zuzendua dut begirada", esan zidan beste batek, argi eta itzalen simetria erabatekoan, uda minean eguerdiko ordua iragartzen zuela.

Gaur, definizioz dagokion lekuan erakusketa burututa ikustean, harro nago, lasai eta soseguz sentitzen naiz, batek lan bat ondo egin duela dakienean bezala, kasu honetan itsasargietako lanaren azalpena. 2022. urte osoan zehar jarraitu nahi dut arrazoibide hau leku askotara eramaten; ahalik eta ikus-entzule gehienei jakinarazi nahi diet itsasargiek duten garrantzia, batetik, haien edertasunagatik, eta, bestetik, barruan daramaten historiaren leku-kotasunagatik, ahalegina egiten baitute hori zerumugarantz jaurtitzen, hala hurbiletik nola urrunetik entzun edo ikusi nahi dituen edonorengana, ekaitzak, haizea edo euria gorabehera, sekula itzaliko ez diren beren distira dirdaitsuekin. Ez dezagun utzi ahanzturak eta herdoilak irents ditzan. ■

[Aldi baterako erakusketak ikusi](#)

ITSAS ISTORIOAK. Itsas gaietako artikuluak edo itsasoarekin zerikusia duten pertsonen elkarrizketak dituen atala

Bilbo 1803

Itsasmuseum


Itsasmuseum Bilbaok erronka egi- ten die gazteenei escape room joko batekin. Benetako gertaeretan oinarritutako abentura bat da, murgiltze-esperientzia bat bizitzeak proban jarriko ditu beren zentzumenak, eta sormen, maltzurkeria, ausardia eta talde-koordinazio bikaina beharko dituzte.


1803ko abuztuaren 15ean, Portugaleteko bi emakumek kontrabandoa leporatu zioten itsasontzi bateko kapitainari. XIX. mendearen hasierako garai hartan, Bilboko Portura bakailaoz beteriko itsasontzi ugari iristen ziren Ingalaterra Berritik, Ternuatik eta Norvegiatik. Merkataritza-bide

horiek pertsonen, salgaien eta kultura-truke aberatsen joan-etorri etengabea sortu zuten. Hiribildua merkataritza-plaza garrantzitsu bat zen, bakailaoa banatzen baitzuen eta Ameriketara eta Europako iparraldeko toki askotara beste salgai asko bidaltzen baitzuten.

Horiek horrela, Portugaleteko bi emakume mesfidatik jakitera eman zuten kapitain atzerritar bat, aspalditik ezaguna Bilboko portuan maiz jarduteagatik, kontrabandoko delitu bat egiten ari omen zela, eta bakailaoaz gain, legezkoak ez ziren beste ondasun batzuk ere garraiatzen ari zela.

Jokalariek ikerketa misteriotsu batean murgildu beharko dute:






Bilboko itsasadarrean nabigatu, trebetasunez mugitu Portugaleteko agintarien eta Bilboko Kontsulatuaren jurisdikzioen artean, San Antongo merkatuan sartu eta, azkenean, gauez, Portugaleteko portuan amaitu.

Modu koralean egindako proiektua da, historian adituak diren bi laguneren –Donald C. Carleton, Jr. aholkulari amerikarraren eta Londresko Unibertsitateko doktore eta UPV-EHUko Historia Ekonomikoko irakasle elkartu Xabier Lamikizen– laguntza akademikoarekin, eta Itsasmuseumeko lantaldearen eta jendeari arreta emateko enpresako pertsonen laguntza-

rekin, haiek gabe proiektu hau ez baitzen posible izango.

Euskarri akademiko horrekin, ziurtatuta dago joko bat testuinguru zorrotz batean garatuko dela ikuspegi historikotik. Izan ere, jokatzeko duten pertsonen testu labur bat eraman ahal izango dute, historian sakontzeko eta, hala nahi badute, ikerketa-artikulu garatuago bat eskuratu ahal izango dute, xehetasun historiko handikoa.

Azken batean, balio pedagogikoak dituen joko bat planteatzen dugu –asmamenaren eta elkarlanaren beharra bezalako balioak–, testuinguru historiko erreal batean kokatuta, nahi duenak sakondu ahal izan dezan; baina jokatzera mugatzen denak ere izango du XIX. mendearen hasieran gure portuak zuen itsaso- eta merkataritza-errealitatearen berri.



IBARROLA ITSASADARREAN: URA, BURDINA, SUA ETA AIREA



Urtarrilaren 31ra arte

ITSASARGIA, GAUEKO IZARRA



Azaroaren 28ra arte

**Eman alta Itsasmuseum Komunitatean
eta harpidetu gure newsletterrean!**

www.itsasmuseum.eus

ORDUTEGIA

Astartetik igandera

11:00 - 19:00

JARRAITU GAITZAZU!



ITSASMUSEUM BILBAO

NEGUKO JARDUERAK

Familiantzako bisita gidatuak

(12 urtetik gorako adingabeak)

Larunbatak (gaztelaniaz) eta igandeak
(euskaraz), 17:00etatik 18:00etara

**Haurrentzako itsas tailerrak
elebitan (4-11 urte)**

Larunbatak (ingelesez) eta igandeak
(euskaraz eta gaztelaniaz), 12:00etatik
13:30era